

## M. U.-k eta Arrasateko Ointxe Saskibaloia Elkarteak lankidetzaren hitzarmena hurrengo hiru denboraldietarako

2007/07/19

Arrasaten, 2007ko uztailaren 18an. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK (MU) eta ARRASATEKO OINTXE! SASKIBALOI ELKARTEAK lankidetzaren hitzarmena sinatu dute hurrengo hiru denboraldietarako. Hitzarmen horren bidez, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK are presentzia aktiboagoa izango du Debagoieneko eta Euskadi osoko gizartean. Izan ere, Arrasateko saskibaloia elkartearen talde guztiek MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN kamisetak jantziko dituzten datozen hiru denboraldietan. Unibertsitatearen eta kirolaren arteko lotura oso estua izan da betidanik. Unibertsitatea gazteen elkarbizitzarako eremua da, eta ikasteaz gain, kirola egiten dute. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK bete-betean uste du kirola egitea balio garrantzitsuak hedatzeko eta irakasteko oinarria dela. Hori dela eta, hasieratik, kirol jarduerak sustatu ditu bere bost campusetan.

Saskibaloia oso kirol hedatua da, eta bi sexuetako eta adin guztietako gazteek egiten dute. Oinarri amateur garbia dauka (bereziki harrobiaren aldeko lanean bereziki), zeharo orokorra da, eta funtsezko balioak oso sakon ikasten dira: ahalegina, norberaren konpromisoa talde-lanaren alde, dinamismoa, zintotasuna, eta, azkenik, dena ematea eta gogotik saiatzea ezarritako helburuak lortzeko. Balio horiek guztiak Unibertsitatean ere hedatuta eta errotuta daude.

Lankidetzaren hitzarmenaren bidez, helburuak eta ekintzak zehaztuko ditugu elkarlanean, Unibertsitateak ikasleei saskibaloia inguruan orain arte egin izan dien eskaintza hobetzeko asmoz. Arrasateko OINTXE! Saskibaloia kirol elkarteak, berriz, Mondragon Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker, duela hiru denboraldi abian jarritako proiektua kontsolidatzeko aukera izango du. Izan ere, Arrasateko eta Debagoieneko saskibaloia zale ugarien ilusioa piztea du helburu aipatutako proiektuak.

### Hitzarmena

- Kirol elkarteak bere hezkuntza proiektua du, eta helburu garbi bat: kirola eginez balio jakin batzuk ikasten laguntzea. MONDRAGON UNIBERTSITATEA eta OINTXE bat datoz erronka horretan. Izan ere, MENDEBERRI izeneko hezkuntza eredu berriaren funtsezko ardatzetako bat balioak irakastea da, eta halaber, ikasleei prestakuntza integrala eskaintzea.
- Kirol elkarte oso errotuta dago eskualdean. 40 urte baino gehiago daramatza ekinean, eta hasieratik harreman estuak izan ditu Arrasateko campusarekin. Arrasaten sortu zen elkarteak, baina eskualde osoari begiratu dio beti. Bere taldeetan, eskualdeko beste udaletako gero eta jokalaririk gehiago daude.
- MONDRAGON UNIBERTSITATEA bat dator eskualdeari lotutako ikuspegi horretan ere. Unibertsitate irekia eta unibertsala den arren, ezin dugu ahaztu bere hiru Fakultateak Arrasaten, Oñatin eta Eskoriatzan daudela (horiei Ordizia eta Irungo campusak gehitu behar zaie), eta ikasleen % 30 baino gehiago eskualdekoak direla.
- Ildo horretan, gaur abian jarri dugun elkarlaneko proiektuak unibertsitatearen misio sozialari ere erantzuten dio. Misio horren bidez, laguntza eta inplikazioa oinarri hartuta, eskualdeko garapena sustatzen saiatzen da Unibertsitatea, eskualdeko eragile anitzekin batera. Horrela, bertako haur eta gazte ugari saskibaloian jardunez balioak lantzeko aukera emateaz gain, proiektu integratzailea sustatu nahi da haranean, baina Euskal Herri osoari behatuz.

### Mondragon Unibertsitatea eta kirola

MUk Unibertsitateak kirola garatzearen aldeko apustu irmoa egin du beti, kirol zerbitzu zabala eta dinamikoa eskainiz, ikasleei prestakuntza integrala emateko asmoz.

10 urte hauetan zehar, kirol zerbitzuak indartu eta garatu egin ditu, eskaintza dibertsifikatuz eta eskualdeko eragileen arteko koordinazioa



M.U.-Ointxe Saskibaloia Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren sinaduraren prentsa aurrekoa

bultzatuz.

Unibertsitateko kirol zerbitzuetako jarduerak hiru esparru handi hartzen dituzte barne:

- Lehiakortasuna: MUK unibertsitateetako kirol lehiaketa guztietan hartzen du parte, hau da, Fakultate bakoitzak nahiz unibertsitate mailan antolatutakoetan, Unibertsitateko Kirolaren Euskadiko Txapelketan (3 euskal unibertsitatek hartzen dute parte), eta Unibertsitateko Kirolaren Espainiako Txapelketan.
- Hezkuntza: ikastaro eta irteera eskaintza handia.
- Egoera fisikoa hobetzea: fitness jarduerak eta ariketa fisikoa egiteko aholkularitza pertsonalizatua.

### **OINTXE! Saskibaloiko kirol elkarteak**

Saskibaloiko jarduerak 40 urte beteko ditu Arrasaten, eta elkarteak jatorrizko garaietara itzuli dela esan daiteke. Izan ere, egungo Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko irakasle eta ikasle batzuek saskibaloiko arloa sortu zuten orduan Juventud Deportiva de Mondragón-en baitan.

Ilusioa piztea lan nekeza da benetan. Batetik, denboraldian zehar ohiko jardueretan –lehiaketa federatuetan eta ikastetxeen arteko ligetan– hartu behar izaten da parte. Bestetik, aparteko jarduerak antolatu behar izaten dira: adiskidantzako partidak, 2x3 lehiaketa, saskibaloiko eskola, teknifikazio jarduerak, entrenatzaile edo epaileentzako ikastaroak, eta jai giroko ekitaldiak, adibidez sagardo eguna.

Ahalegin horren saria MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN lankidetzak izan da, aurrera egiteko gogo bizia sorrarazi baitu herriaren eta eskualdearen alde jardungo duen elkarte parte-hartzailea eratzeko proiektua sustatzen ari diren guztiengan. Era berean, kirol maila eta barne antolamendua hobetzeko egin duen lana kontsolidatzeko aukera ere emango dio elkarteari.

Hizpide dugun lankidetzari esker, kimuetatik hasi eta senior mailetaraino, saskibaloian jokatzeko aukera paregabea eskaintzen jarraituko du elkarteak, eta jarduera guztiak antolatzen.

Kirola, eta bereziki saskibaloia, bultzatzen laguntzeko konpromisoa hartu duten beste unibertsitate batzuen, esaterako EHU eta UPNAren, bide berbera urratzea erabaki du MUK.

Hurrengo denboraldirako, 2007-08rako, 11 talde izango ditu elkarteak. Horietako 6 federatuta egongo dira, eta ziur aski 4 haur talde eta kimu talde 1 izango ditu. Mutil taldeak dira denak. Izan ere, saskibaloian jokatzeko Arrasateko emakume taldeek hainbat denboraldi daramatzate Eskoriatzako klubarekin lankidetzan.

Klubeko lehendakariaren, Jon Basurkoren, ustez, “klubeko taldeek oso harro jantziko dituzte MONDRAGON UNIBERTSITATEA izena daramaten kamisetak, kantxa guztietan. Azken urteotan bezala, kirol garaipen garrantzitsuak lortzea espero dugu, eta erreferentziazko elkarteak izatea Gipuzkoan eta Euskal Herrian. Baina ororen gainetik, entrenamenduetan eta partidetan eginahalak egiten eta dena ematen saiatuko gara, horixe baloratzen baitugu gehien. Izan ere, gure elkartearen ezaugarri bereizgarriak horiek izatea nahi dugu”.